



Asteazkena, 2013-07-24



Oarsoaldeko eta Bidasoko informazioa, euskaraz

ZUREA DA HITZA

Nabigazioa ☰

## Larunbatean txotx egiteko elkartu dira Olagarro eta Herrira

by **Hondarribiko Hitza** on 2013/07/24 in **AISIA, GIZARTEA**

Larunbat arratsalderako, hilak 27, VIII. Sagardo Eguna prestatzen ari dira Olagarro Kultur Elkartea eta Hondarribiko Herrira Bilgunea. Ohi bezala, Santiago kalean egingo da eta zazpi ekoizleren sagardoak datatzeko aukera izango da. Antolatzaileen helburua, "Hondarribiko biztanleei zein udatarrei gure kulturaren parte bat ezagutaraztea da, giro euskaldun batean murgiltzea eta jendeak ondo pasa dezala".

18:00etan hasiko da larunbateko Sagardo Eguna, baina festa giroa ordu erdi lehenagotik behintzat egongo da Portuan, ordu horretatik aurrera ariko baitira trikitilariak txotxerako deia zabaltzen. Seietan, bertso batekin irekiko dute Hondarribiko Sagardo Egunaren ekitaldia eta hiru orduz, 21:00ak arte, zazpi kupeltegien artean bakoitzak gustuko duen sagardoa aukeratzeko modua izango da.

Asko edateak gorputzari kalte egin ez diezaion, pintxoak izango dira jateko. Hala, bost eurorekin edalontzia erosi eta nahi adina edateko aukera izango da, baita pintxo bat jateko ere, prezioaren barruan.

### Olagarro eta Herrira

Zortzigarren aldia da Olagarrok sagardo festa antolatzen duena. Aurten, baina, Hondarribiko Herrirak lagundu dio antolaketan eta, hori horrela, gatazka politikoaren konponbiderako urratsak galdegiteko baliatuko dute larunbat arratsaldeko ekimena. "Euskal preso politikoaren aldeko aldarria egin nahi dugu, presoek eskubideak zeintzuk diren azalduz eta pairatzen duten dispertsio politika hiltzailea salatuz. Presoek ere, Euskal Herriak bizi duen bake prozesuan parte hartzeko eskubidea dute eta hori aldarrikatu nahi dugu", adierazi dute Herriratik.

Gaueko bederatzietan bukatuko da Hondarribiko VIII. Sagardo Eguna, baina nahi duenak aukera izango du sagardoa dastatzen jarraitzeko, Portuko ostatuetan.

### Hondarribiko Sagardo Eguna. Sagardotegiak

- Beko Errota
- Garziategi
- Larre Gain
- Lizeaga
- Petritegi
- Oialume zar
- Ola

### 📍 herrira. Olagarro. sagardo eguna

◀ Baluarte Rock jaialdiko bigarren saioa, Santiago Egunean

Olio margo berriak aurkeztuko ditu De Garayk Otzaski galerian ▶

### Profile

Sign in with Twitter Sign in with Facebook

or

Name Email  Not publishedWebsite 

CAPTCHA Code \*

Post It





Bilatu zure inguruko sagardotegia

Bilatu



Alarpe zalditegia

deskontua

15,00 €

%62

Eskaintza ikusi

#### LABURRAK

Olio margo berriak aurkeztuko ditu De Garayk Otzaski galerian

Jaizkibel konpainiak kantinera hautatu du

Santiago Egunean ere alborada joko dute txistulariek

Txingudiko artisauek azoka jarriko dute ostiral gauean kirol kaian

Irakurri guztiak

#### AGENDA

Gazteen folklore jaialdiak Hondarribia bisitatuko du ostiralean

Baluarte Rock jaialdiko bigarren saioa, Santiago Egunean

EGOren emanaldia, Itsas Etxea Auditoriumean

Sokatinako nesken entrenamendua gaur izango da

Jaietako kartelen erakusketa aste honetan izango da ikusgai

Irakurri guztiak

## BIDEOAK



Koadrilen poteoa, madalenetan

1:30



Haurren danborrada, madalenetan

0:19



Afro ospakizuna, madalenetan

2:25

## HITZAREN 10. URTEURRENA



## IRITZIAK



30 urte eta gero...

Ederra... mundiala! Hiru bizardun, kainabera bat...




Mundua aldatzeko arma

Mandelak 95 urte bete ditu eta, itxura guztien...

Irakurri guztiak

h a r n i d o d u n n o n



## BILATU

Bilatu...

## HERRIAK

Biriatu | Errenteria-Oreñeta | Hendaia | Hondarribia | Irun | Lezo | Oiartzun | Pasaia | Pausu |

| POPULARRAK                                                                                                                                       | EKARPENAK |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| <ul style="list-style-type: none"><li>• Ereintzaren tenis inekiarekin finalak jokatuko dituzte asteburuan<br/>2013/07/18</li></ul>               |           |
| <ul style="list-style-type: none"><li>• PSE-EE: "Azken bi legegintzaldietan babes ofizialeko 630 etxebizitza egin dira"<br/>2013/07/11</li></ul> |           |
| <ul style="list-style-type: none"><li>• Landare hondakinak gaika biltzeko 15.000 familiak eman dute izena Bidasoon<br/>2013/07/13</li></ul>      |           |

25°C

Gaur **24°C 19°C**  
Bihar **25°C 19°C**  
Ostirala **27°C 19°C**  
© Tutiempo.net **Más »**

## 'HITZA'REN 10. URTEURRENA



## URTEKARIA



## KORRIAKO GEHIGARRIA



## BERRIKETAN.INFO [RSS]

[Iñaki Petxarroman](#)



posted an update

17 minutes ago

2008 eta 2012 bitartean enplegua sortu da Ipar Euskal Herrian, Frantziako Estatuko joera orokorraren aurka.

[http://www.lemonde.fr/emploi/article/2013/07/24/la-carte-de-france-des-pertes-d-emplois\\_3452799\\_1698637.html](http://www.lemonde.fr/emploi/article/2013/07/24/la-carte-de-france-des-pertes-d-emplois_3452799_1698637.html)



[Jon Olano](#)

posted an update in the group

[Frantziako Tourra 2013](#)

3 hours, 26 minutes ago

Aurtengo Frantziako Tourra, 9 minutuko bideoan [http://www.dailymotion.com/video/x125o7z\\_tour-de-france-les-plus-beaux-moments-de-la-100e-edition\\_news?start=36#Ue-oHes4Fz9](http://www.dailymotion.com/video/x125o7z_tour-de-france-les-plus-beaux-moments-de-la-100e-edition_news?start=36#Ue-oHes4Fz9)



[Iñaki Larrañaga](#)

posted an update

4 hours, 48 minutes ago

Euskaldunak New York Timesen arabera: "Etxean bezala sentitzeko esanda, dena egin dutela uste dute" (1875) <http://itiki.com/53523> "Askatasunaren maitasun kartsuagatik dira ezagunak" (1899) <http://itiki.com/53524> #euskaldunak #NewYorkTimes



[Jon Olano](#)

posted an update

5 hours, 8 minutes ago

"Edozein" bake akordio babesteko prest leudeke Israelgo herritarren %55, Haaretz egurariaren inkesta baten arabera <http://www.haaretz.com/news/diplomacy-defense/.premium-1.537586>



[Jon Olano](#)

posted an update

5 hours, 37 minutes ago

Siriaren menpeko kurdien de facto autonomia ez duela onartuko esan du Turkiako Gobernuak <http://www.europapress.es/internacional/noticia-turquia-recalca-no-aceptara-autonomia-facto-siria-avance-grupos-kurdos-norte-20130724051721.html>

## WEBGUNE LAGUNAK



### PAPERKOA 2013-07-19

- Oiartzungo Herrira-k martxa antolatu du hiru espetxetara
- Errenteria-Oreretako hondakinen taldea helmugara iritsi da
- Peio Mindegia, 'Banderen gerra' -ko kaltetuari elkarrizketa
- Baserriko produktuak erosteko aukera Hondarribian
- Lau domina, baina urtzorik ez Gipuzkoako Traineru Txapelketan



### IOSU MITXELENAREN KOMIKIA

OARSO BIDASOKO HITZAren 418. zenbakian argitaratutako komikia.



## KIROLA

- ▶ Atlantiar Jokoetan laugarren sailkatu da Maddi Fernandez lezoarra
- ▶ Real Unionek Realaren bisita jasoko du gaur Galen
- ▶ Ojuel-Irusta bikotea garaile Zuloaga memorialeko afizionatuetan

🔗 Oartzungo esku pilota saria jokatzeko hasiko dira ostiralean

## KULTURA

---

- 🔗 Donostia 2016ko zuzendari nagusi izango da Itziar Nageras
- 🔗 Olio margo berriak aurkeztuko ditu De Garayk Otxaski galerian
- 🔗 'Anplag', umorezko antzezlanari Santiago kalean
- 🔗 EGOk etzi joko du Itsas Etxean

## AISIA

---

- 🔗 Luis Otañok jaso du merezitako omenaldia
- 🔗 26 bikotek omenaldia jaso dute
- 🔗 Asteazkeneko egitaraua
- 🔗 Kamiseta gorriak, bustita

## GIZARTEA

---

- 🔗 Nabarra Boua plazako aparkalekua zabaltzeko prozedura hasiko du udalak
- 🔗 Oartzunen %39,94k euskaraz erabiltzen ditu kuxazain automatikoak
- 🔗 Intzurako jateetxea abuztuan itxita egongo da, berritze lanengatik
- 🔗 Larunbatean txotx egiteko elkartu dira Olagarro eta Herrera

## EKONOMIA

---

- 🔗 Ficoban egindako salmentak %6,5 hazi dira urteko lehen erdian
- 🔗 Etxez etxeko laguntza zerbitzurako udal kudeaketa zuzena proposatu du Bilduren udal taldeak
- 🔗 Baserritarren azoka San Pedro kalean estreinatu da